



**Olentzero eta Mari Domingi pasa izanagatik ere, ez da atsedenerako tarte handirik eguberri egun hauetan, batez ere, etxeko txikienei begirako egitarau zabala dago prestatuta eskualdeko herrietan** [4-5](#)

tolosaldeko

# Ataria

3. urtea. 417. zenbakia. • [www.ataria.info](http://www.ataria.info) • 107.6 fm • 105.0 fm • **ASTEARTEA, 2015-12-29**



Xabier Artola Zubillaga Irakaslea eta Ixa Taldeko kidea

## «Kontuan izan behar da zuzentzaile ortografikoak hitzez hitz zuzentzen duela»

Hogei urte pasa dira Xuxen euskarazko zuzentzaile ortografikoa sortu zutela. Bosgarren bertsioa aurkeztuta dute, eta hurreira «oso ona» izan du [6](#)

## I. GABONETAKO TORNEOA JOKATUKO DUTE LIZARTZAN

Herri txikietako areto futboleko jokalariekin osatutako GAEL taldeak, Leitzako Aurrera, Irurtzango Xota eta Ertioxako Larderoren aurka jokatuko du urtarriaren 2an [7](#)



Munduko txapeladunek Lizartzan aurkeztu zuten torneo. A. IMAZ



## Elkartasun keinuuz

Asteasuiko I. Herri Krosa izan zen igandean, Asteasun, eta erantzun bikaina izan zuen. Haurretan 100 eta helduetan 120 parte hartzaile inguru atera ziren korrika. Ateratako dirua El Salbadorreko Segundo Montes komunitateko gazteen ikasketak ordaindu ahal izateko baliatuko da. [7](#)


## Artola-Albisu lehenak, lau pilota partidak irabazita [6](#)

Anoetaldia

Xabier Artola Zubillaga • Irakaslea eta Ixa Taldeko kidea

# «Aurkeztu eta berehala 4.000 deskarga inguru izan genituen»

Euskal gizartean izandako oihartzunaz harriturik, duela hilaibete inguru aurkeztutako Xuxenen bosgarren bertsioak harrera «oso ona» izan duela nabarmendu du Xabier Artolak




EHUko Informatika fakultatearen kanpoaldean, Xabier Artola Zubillaga. IxaTaldeko kidea. I. Iruerrioz

**IOSU ITURRIOZ DORRONSORO ALKIZA**

Ixa taldeko kideak. Euskal gizartean izandako oihartzunaz harriturik, duela hilaibete inguru aurkeztutako Xuxenen bosgarren bertsioak harrera «oso ona» izan duela nabarmendu du.

**Hogei urte pasa dira Xuxen euskarazko zuzentzaile ortografikoa sortu zutela. Sarean euskaraz idazten duen ororentzat «tresna ezinbestekoa» dela dio Xabier Artola Zubillaga. EHUko Informatika Irakasleak eta**

**Hogei urte pasa dira Xuxen euskarazko zuzentzaile ortografikoa sortu zutela. Sarean euskaraz idazten duen ororentzat «tresna ezinbestekoa» dela dio Xabier Artola Zubillaga. EHUko Informatika Irakasleak eta**



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak**  
**(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**

Duela bi hamarkada, Ixako taldeko kideok euskararen tratamendu automatikoan ikertzen hasi nahi genuen. Baina itzulpen automatikora edo beste aplikazio aurreratuago batzuetara iritsi baino lehen, oso kontziente ginen hainbat pauso emateko beharraz. Besteak beste, euskarazko zuzentzaile ortografikoa sortzea. Egoera horren aurrean, Ixa taldea, UZEI eta Baionako Hizkia bildu eta elkarrekin Xuxenen lehenengo bertsioa aurkeztu genuen. Lehen bertsio horretan, honakoa izan zen gure planteamendua: hitzak soilik ezagutuko zituen zuzentzaile konbentzional hutsa egin beharreen, segmentatzaile morfolo- giko bat sortzea. Adibide bat jartzearen euskarazko zuzentzaile batek ez du bakarrik 'mend' ezagutu behar, baizik eta baita 'mendi', 'mendiarekin', 'mendietatik'... ere, hitz bakoitzeko forma ugari ezagutu behar ditu. Puntu horretan ikertzen hasia zen gure helburu nagusia,

**“ Izan duen bilakaera nagusia egun erabiltzaileak beste hainbat euskarritan aurkitzeko aukera izatea da”**

**“ Xuxenen bosgarren bertsioaren puntu garrantzitsuena hori da: erabiltzaileak Word 2007, Word 2010 eta Word 2013arekin erabiltzeko aukera duela orain”**

Izan ere segmentatzaile morfolo- giko hizkuntza prozesatzeko oinarri- oinarritzko tresna baita. **Zein bilakaera izan du mende lau- den honetan?**

Lehenengo bertsioa Macintoshera- ko soilik zen. Izan duen bilakaera nagusia egun erabiltzaileak beste hainbat euskarritan (Word, Office, nabigatzaileetan, OpenOffice, LibreOffice, InDesign, HunsPELL...) aurkitzeko aukera izatea da. Bestalde, hizkuntza aldetik ere, bilakaera na- baria izan da. Euskaltzaindiak zer esan, beratu txertatu dugu. Azken batean, Xuxenek araugintza aurrera doan heinean egokitzen joan behar du.

**Aurreko bertsioekin alderatuta, zer gehiago eskaintzen dio bosga- ren Xuxenek erabiltzaileari?**

Ohartu gara egun Euskal Herrian jende gehienak Microsoften tresnak erabiltzen dituela. Azken urteetan, arazoak izan ditugu gure bertsioak Microsoften euskarrietan integra- tzeke. Duela urte asko aukera existi- tzen zen, baina 2008tik hona Micro- soft konpainiak ateak itxi ditu bola- da batez. Xuxenen bosgarren bertsioaren puntu garrantzitsuena hori da: erabiltzaileak Word 2007, Word 2010 eta Word 2013arekin erabiltzeko aukera duela orain.

Bestalde, erabiltzailearen hitze- gia nabarmendu beharrekoa da. Orain arte, Xuxenek pertsona izen zehatzak edota lekua izen jakin ba- tzuk ez zituen ezagutzen. Bertsio berri honetan, erabiltzaileak hitz hori bere hitzegi propioan sartzeko aukera du. Une horretatik aurrera, zuzentzaileak hitz horren deklinabi- de guztiak ezagutuko ditu. Eta hori ez da izen berezietan bakarrik gerta- tzen, izen arrunt, adjektibo eta adi- tzak ere sar baitaitezke hitzegi pro- pio horretan, nahi izanez gero.

Funtzionalitate aldetik aurreko bertsioetan topa ezin zitezkeen bi bereizgarri nagusi daude. Orain arte Xuxenek azpinarra gorriak soilik egiten zituen, oker dauden hitzak adierazteko. Bosgarren bertsioan azpinarra gorri zein berdeak ageri dira. Azpinarra berdeak, bi erabi- pen nagusi ditu. Batek, hitz estan- darrak izan arren, Euskaltzaindiak lehenetsiak ez diren kasuetan, Eus- kaltzaindiak gomendatutako hitzen berrit emango zaio erabiltzaileari. Adibidez: 'aintz' euskarra batuan idatz daiteke, baina hobe da 'anitz' idaztea. Bestetik, arazo gramatika- lak edota puntuazio arazoak adie- razteko ere erabili dugu azpinarra berdea.

**Xuxen Microsoften azpiegituran integratzea zergatik izan da hain zaila?**

Microsoftek azpiegitura bat eskai- nten du besteen programak beren aplikazioetan integratzeko, eta ez- kontza horrek zailtasun handiak ekarri dizkigu. Urte batzuetan Micro- softek bide hori itxi egin zuen. Oro- korrean jendeak Worden atzean da- goen zuzentzailea Xuxen dela uste

# Euskal presoen eskubideen alde, kalera ateratzeko deia

Aduna, Aikiza, Asteasu, Larrail eta Zizurkilgo udal ordezkariak deitu dute manifestazioa

ERREDAKZIOA



Aduna, Larrail, Asteasu eta Zizurkilgo udal ordezkariak. ANAIA

dezkariak. Espainiar eta frantziar gobernuak helarazi nahi dizkieten oinarriko eskaeren artean daude: «Dispersioarekin amaitzea, euskal presoak Euskal Herriatzea eta gaitxotasun larri edota sendaezinak dituzten presoen kaleratzea».

## Ibarren elkatasuna, baldintzatik

Herriko hainbat eragilek elkarlanean *Nik ere jarriko dut* ekimena jarri dute martxan. Euskal preso eta inehsarien eskubideen alde egingo dute aldarrikapen hau, eskubideak, konponbidea eta bakera eskatuz.

Kanpaina grotzeko, arlo ezberdinetan diharduten 50 ibarrez osatutako kartela prestatu. Deialdiaren helburua, ibar bar guztiek preso eta inehsariaren etxeratzea eskatzen duen banderola balkoieta jartzea da, eta ebez etxe banatu dituzte.

Ekimenan parte hartu duten eragileek adierazi dutenez, gizartearen antzitasunean oinarrituta, «In-darrak bilduz» preso eta inehsariaren egoera aldatzea «beharrekoa» ikusten dute. Izan ere, euren esanetan 2011n, «bake justu eta iraunkor bat lortzeko bide orri bat» proposatzen duen Aieteko Alderazpenetik, egoerak «hobera» egin beharrean, «Xarrera» egin duela uste dute.

Ibarrako Sarek dei egin du, hilaren 31n, 19:00etan, Ibarako sarreran burutuko duen *Mugi datetzen harriak* ekimenean parte hartzeko.

Azkemik, Bilbon egingo den manifestazio nazionalera joateko autobusetan izena emateko zerrendak, ohiko lekuetan jarriko dituzte.

Altzon, *Mugi datetzen harriak* ekimenean barruan, urteko azken egunean, 20:00etan, elkarretartea egingo dute, herriko plazan. Alegian, berriz, 19:00etan, *Euskal preso eta inehsariak* etxera lelopean manifestazioa egingo dute.

Ehuyarrek, azken bertsiotan, bere balibide propioak erabili behar izan ditu. Eusko Jaurlaritzak diruz lagundu izan ditu gure proiektu batzuk, baina oraingo hau ez

tu honetan? Nola egiten duzue lan Xuxenen tripetan?

Zuzentzaile batek ez du testuingurua kontuan hartzen. Posible da hitz bat okertzat azpimarratzea baina idazleak jakin behar du testuinguru horretan ondo dagoen ala ez. Alde-

**“ Xuxenek araugintza aurrera doan heinean egokitzen joan behar du”**

rantziz ere gertatzen da, eta maiz-erago, gainera. Hau da, zuzentzaileak ez du hitz bat gorritz azpimarratzen, berez zuzena delako, baina testuinguru horretan ez da zuzena. Kasuak kasu, esaldi aldrebes bat –ni atea ikusi dugu– idatz dezakegu, eta zuzentzaile ortografikoak ez du ezer zuzenduko, esaldia oso gaizki egon arren, lau hitzak zuzenak baitira. Ezinbestekoa da kontuan hartzea zuzentzaile ortografiko batek hitzez hitz zuzentzen duela testua.

**Uste duzu posible izango dela etorkizunean mota horretako zuzenketak gauzatzea?**

Nik uste bide horretatik doala zuzenketak gramatikala eta estilo zuzenketak. Zuzenketa gramatikalaren alorrean aurrerapenak egiten ari dira. Gure ikerketan ez dugu azterketa morfologikoa soilik egiten, analisi sintaktikoa ere egiten dugu. Itzulpen automatikoa bezalako aplikazio bat egiteko, hizkuntza batetik bestera pasatzeko, esaldi osoa uler-

**“ Ezinbestekoa da kontuan hartzea zuzentzaile ortografiko batek hitzez hitz zuzentzen duela testua”**

tu behar da. Nahiz eta bestelako metodoak badiren, esaterako aski ezaguna den Google-en itzulpen programa. Sistema erabat estatistikoa da, antzerakoak diren bi hizkuntza hautatu eta batak bestea eragandik ikasten du, inongo gramatikarik gabe. Benetan gramatika duten sistemetan, sintaktikoki esaldia aztertzea oinarrikoa da. Etorkizunean sareko zuzentzaileek horrelako zuzenketak egingo dituzte, baina Xuxenek ere.

**Zein izan da zure egiteko proiektu**

**“ Gure ikerketan ez dugu azterketa morfologikoa soilik egiten, analisi sintaktikoa ere egiten dugu”**

kexa eta iradokizun ere. Azken horietan kasu eginenez, bosgarren bertsiotan bertsiotatu berriagoa prestatzen hasiak gara. Urtarrikerako martxan egotea nahi genuke.

**Doako zerbitzua al da? Laguntza ekonomikorik jasotzen duzue?**

Lehen bertsiotatu izan ezlik, gainerako guztiak doako zerbitzua izan dira. Egun, InDesignera bertsiotatu soilik ordaindu behar da. Profesionalentzako bertsiotatu da eta horrenbestez ordaindu beharrekoa. Alpatzekoa da Eihuyarrek, azken bertsiotatu honetan, bere balibide propioak erabili behar izan dituela proiektua aurrera ateratzeko, ez baitugu diru laguntzarik jaso. Eusko Jaurlaritzak diruz lagundu izan ditu gure proiektu batzuk baina oraingo hau ez.

**Aurrerapauso nabariak eman dituzte urteotan. Non dago jomuga? Zer gehiago egin daitteke?**

Mugikorretan txertatzea. Nola bait txertatua dela uste dute, baina sisteman txertatzea gustatuko litzatezke. Bestalde, aurrez esan bezala, zuzentzaile gramatikalaren aldetik, gure bertsiotatu dituzten dugu helburu gehiago aztertzea dugu helburu.